

ERRIMAREN HOTSERA BERTSOTAN

Txorien kantu-hotsa basotik dela zein pozik itzartzen garen iratzargailurik gabe, lanera ez inora joan beharrik ez dugula! Eta pentsamendu xumeen isuri mehean, adarrik adar, sasirik sasi aske, maiteminetan, udaberriari deika eta hari bere izaera ematen ari diren zozo, birigarro, txindor eta gainerako txorixoen artea miretsi nuen. Haiek ez dute solfeorik ikasi, ez eta neurririk ez errimarik landu ere. Senak eman ahala, kantari ekiten diote. Guk, ordea, guztia ikasi, landu, orraztu eta ukitu behar gauzak taiuz egitekotan. Berezkoa ere pixka bat derri-gortu eta igurtziegi, menginelegi, motelegi edo artifizialegi bihurtzeraino askotan...

Bertsolaritza dut gogoan. Usadioz datozen gauza guztietan bezala, antzina bertso zaharrak buruz ikasi eta kantatuz ikasten zuten bertsotan horretarako joera eta grazia zutenek. Buruz ikasitako bertso zaharrak imitatuz, ia-ia senak eman ahala, askatasun handiz, antolatu gabeko une eta tokietan, lagunartean, tabernan, plazan nahiz soroan, kantari ekiten zioten. Xenpelarrek zioen «debalde festa preparatzen det / gogoia dedan orduan» egia bihurtu ohi zen maiz.

Dena dela, argi eta garbi aitortzen dut burruka batean ari naizela neure baitan: alde batetik maite dut berezkoa, behartu gabe, bere bidean, bere ekinean aurrera doana, iturritik hara isuri gozoan ari dena... baina bestetik, gauzak txukun, ondo landurik eta azken orduko gorabeheren menpe utzi gabe egitea ere oso gogoko dut.

Eta lehengo harira joz, antzina eginez, kantatuz, herriaren gogotan zeuden bertso zaharrak ikasiz, ereduak imitatuz ikasten zuten bertsotan. Ziur aski ez ziren jabetzen horretarako urratsez, ez zuten jakingo bertsoaren barne-jokoaren zertzeldak azaltzen. Hori guztiori handi-handika baizik ez zuten ulertuko. Bertsogintza mende izango zuten, baina bere osotasunean, ez xehetasunetan. Haurrak, oharkabea, makina bat saio eta ahalegin egin ohi du hizketan ikasteko. Baina behin ikasitakoan, ez daki nola ikasi duen, zer egin duen horretaraino heltzeko. Badaki hitz egiten eta kito! Halako zerbait gertatzen zitzairen bertsolari zaharrei edo eskola zaharrekoei ere. Neurria, puntua, hoskidetasuna eta abar badirela hor ohartuko ziren, baina doinua gidari zutela, ahalbait ondoen beteko zituzten arauok erdi oharkabea.

Gaur eguneko bertso-eskoletan, ordea, beste bide batetik abiatzen dira haurrak bertsogintzarantz: bertsoa xehetarik ematen zaie, irakurtzen ikasterakoan letrak eta hizkiak (silabak) bana-banaka ematen zaizkien bezala. Egokitzen jotzen dut bide hori eta irakasgai guztietan, gutxi gorabehera, horrelaxe jokatu ohi da. Bada, hala ere, arriskurik horretan: berezko etorriaren falta, landuegia, tarteko urratsak nabarmenegi, batasun edo osotasunik eza, ahapaldi behartuak batzuetan... Bertso landuak, goitik behera ongi ehoak zoragarrak dira, baina lotura handikoak eta biribilak izan behar dute, burutzerakoan edo tartean esfortzu handiegirik ez du antzeman behar entzuleak. Halaxe behar eta tolestura ezin hobia, berez-berezkoa duten ahapaldien zentzazioa utzi behar lukete entzulearengan.

Errima

Gaur eguneko bertso-eskoletan bertsoa xeheturik ematen zaiela adierazi dut arestian. Lantxo honetan, oso laburra izanez gainera, ez dut uste gauza berririk esango dudarik, baina erdi ahazturik diren zenbait gauza noizbehinka gogoraraztea ongi etortzen da eta gogoeta txiki bat egin nahi nuke errimaz eta bide batez baita potoaz ere.

Bertso batean, puntu bakoitzaren bukaerako hitzek behar duten hoslaketasuna da errima.

Puntu bakoitzaren bukaeran doazen hitz horiek, oinak dira, eta oinek errimatu egin behar dute. Oin horietako azken silabek berdinak edo berdintsuak izan behar dutela, alegia. Beraz, azken silaba horiek ez dute berdin-berdinak izan beharrik. Kontsonanteak hoslakideak izatea aski da.

Nork ez daki errimaren garrantzia bertsoan? Errima aberatsa eta pobrea aipatzen da. Errima aberatsa hoslaketasun gozoa, belarrirako atsegina da, eta pobrea, alderantzizkoa.

Errima aberatsaren eredia, hori kosta ahala kosta lortu nahi izatea, Xenpelar, Pello Mari Otaño, Bilintx eta orokorki Gipuzkoako bertsolari-eskola zaharretik dator.

Iparraldekoek askatasun handiagokoak dira horretan. Ez hain lotuak errimari. Ikusi besterik ez dago Etxahun Barkoxekoaren bertsoak. Xalbadorren ezaugarria ere ideia eta sentimenduei emana izatean datza, eta ez hainbeste teknikari, errimari eta gainerakoari. Euskararen erabilera zuzenari eta adierazpide poetikoei, berriz, asko begiratzen zien.

Bizkai aldean, koplak zaharretan, errima aberats samarrak agertzen dira. Izan ere, Bizkaian testulariengandik hasita, errima aberatsak egitea hitzaren jolasean trebetasun seinaleztat hartua izan da. Hala ere bertsoan, Urretxindorra eta Balentin Enbeitaren lehen garaikoak, behintzat, ez dira errima aldetik on-onak. Hauek ere, olerkarien eragina edo ukitua zuten eta,

Urretxindorraren kasuan batez ere, mitinetan eta une handietan kantatu beharra izanik, errima eta horrelakoei baino edukari eta poetikotasunari gehiago begiratzen zieten. Gure gaurko gusturako, beraz, errimaz motz dira eta belarrirako ez hain gozo.

Honetaz Basarrik ere idatzi izan du noizbait. Kezkaturik, uste dut, Gipuzkoako tradizioa zama astunegia zelako. Orrazi estuegia erabili izana salatzen zuen, ideia, arrazoi eta edukiaren kaltetan.

Honek arrisku batzuk dakartza ene ustez: a) ideietan urri ibiltzea edo edukiei garrantzi txikiagoa ematea. b) errima aberatsak bai, baina makulu antzekoak, denerako balio duten klixte edo topikoak errepikatu eta errepikatu egitea.

Beraz, epaimahaiko eta antzeko zereginetan izan ohi direnei honako hau gogoratuko nieke: errima aberatsa guztiok dugu gogoko, baina lehendik ere bertsolarien kontzientzian existentzia zorrotza da horretan, eta zilegi denetik alde egin ezik, ez lukete horretan gehiegi estutu behar.

Xehetasun txiki bat

Hau guztiau ez doa ondoren esango dudanaren aurka: **-ea / -ia, -oa / -ua**. Argi dago **-a** hutsez errimatzea ez dela zilegi. Aurreko bokala nahiko antzekoa gerta daitenean, nahasian erabiltzea onartzekoa ote da? Esaterako, goian aipatutako bikote biok? Nire iritziz, lehen bikotekoak, **-ea / -ia** nahasian erabiltzea ez da onartzekoa; **-oa / -ua** bai, ordea. Jakina, nahaste hura ere ez litzateke inondik akats larria. Zergatik bikote bata nahastean onartzekoa eta bestea ez? Ahozkotasunean fonetikak agintzen du eta ez grafiak. Beraz, fonetikan, **-ia** bikoteak bustidura duelako eta abar, bereizketa garbia du **-ea**-rekiko eta bertsolari zaharrek ez dituzte bertso berean nahasten. Transkripzioan ere **-ia -iya** egiten dute eta **-ea** maila bat itxirik **-ia. -oa / -ua** bikoteak, berriz, ez du bereizketa garbirik fonetikan;

Euskal Herriko zati handi batean egiten denik ez behintzat. Horrela, bertsolari zaharrek ez dute bereizketarik egiten eta Txirritak honela egiten du «Neskazar bat tentatzen» izeneko bertsoan: *lenguan / zeguan / genduan / munduan*. Lehen biak, berez, **-oan** dira (*lengoan, zegoan*). Aurreko bokal-bikotean ez du sekula hutsik egiten, bereizketa garbia baizik. Orobat gainerako bertsolari zaharrek ere.

Potoa

Rufino Iraolaren lan batean irakurria dut honako arau hau: berez aberatsa den errima, atzizkiren bat gehitu arren, aberats izango dela beti. Irizpide hori orohar onartu arren, atzizki bera lau edo bost errimatan eranstea pixka bat itsusitu egiten ote den inpresioa dut. Baliteke ezetz... Nik **-tikan** atzizkiaz bertso osoa errimatzea itsusia eta errazkeriara jotzea litzakeela eta Egañaren bertso bat aipatu nuen adibidetzat. Honela ziren lau oinak: **usterikan / tristerikan / hasterikan / besterikan**. Ez nintzen ohartu **-rikan** horren aurretik ere errima aberatsa zutela hitz horiek. Zer ote deritzo irakurleak? Atzizki bera lau errimetan erabiltzeaz galdu egin ote du ala ez?

Baina hemen potoaz ari naiz. Bilintxena jartzen da honelakoetan adibide gisa. Bilintxek errima oso aberatsak eman ondoren, **bat** hitza eransten die guztiei: gazte **bat** / beste **bat** / aste **bat** / triste **bat**. Bertso hori inork ez du pototzat jo sekula, oso bertso ontzat baizik. Guretzat bat hori hitz autonomoa da, aditz laguntzailea hitz autonomoa den era berberean; baina ahozkotasunean ez da hala gertatzen. Ahozkotasunean aurreko hitzari loturik hartzen da. Beraz, aditz laguntzailea, bera soil-soilik errimatzeke erabiltzen denean, poto izango litzateke bertso berean errepikatuz gero. Eta aurretik baletor ez? Silaba bakarrekoetan ez behintzat: da, bat... Gainerakoetan... atzizki antzera jotzea gehiegi ez ote? «egin» hitzarekin sortutakoak ere poto garbia ez badira, badaezpadakoak dira, eta gutxienez, errima pobreak: *hitz egin / hots egin / zotz egin / sats egin...*

Dena dela, «hitz egin» ez da bizkaierazko «berba egin» bezalako: honek, galdegaia zein den, ordena aldatzea ere eskatzen du, esaterako: «ederto egin dau berba». «Ederki egiten du hitz» nekez entzuten da, ordea. Honek ordena nahiko finkoa du; idatzi ere maiz idazten da loturik: «hitzegin»...

Iraizean eta handi-handika jota ere, ikusten duzu, irakurle, xehetasun ilun eta duda-mudako ugari direla bertsoetan, baina oraingoz hementxe utziko dugu harila gehiago korapilotu gabe.

Luis Baraiazarra Txertudi